

HAU EZ DA GURE ERREBELDIA

Lope Agirrerri omenaldia egin nahi diotela eta, horren aurrean dauzkagun kezka eta ardura azaldu nahiko genuke.

Ez da kasualitatea Lope Agirre ezezaguna izatea. Izan ere, Amerikaren inbasioaren hastapeneko garaia “Urrezko Aro” izendatu du eskuin espainiarrak eta Lope deserosoa zaie. Ba guretzat ere deserosoa da, arrazoi oso ezberdinegatik, ordea.

24 urtez espainiar koroaren zerbitzura sarraski, espolio eta lurraldeen lapurretan jardun ostean, espainiar koroari planto egin zion. Baina Lopek ez zion uko egin “deskubritu” zuen lurralde horren espolioari. Alegia, espainiar koroari planto egin zion, ez dinamika kolonialistan aktiboki parte hartzeari. Ez dugu zalantzarik: Lope Agirre kolonizatzaile bat zen. Pertsonaia historiko hau historiko bihurtzen duen ezaugarria horixe bera da. Hain justu, dinamika kolonialaren baitan esan zion espainiar botereari “izorrai”. Ez dirudi arrazoi kolektibo eta iraultzaileengatik egin zuenik; gehiago du botere eta egotik.

Hanka sartzea iruditzen zaigu gaur egungo irakurketa ideologikoaren baitan bere kolonizatzaile izaera bigarren mailan uztea; noski, ezkerreko ikuspegitik ari bagara, behintzat. Soilik pribilegio zuritik ken dakioke garrantzia garaiko eta egungo zapalkuntza bortitz honi; supremazia zuri europarretik asko dauka. Ez dugu esaten hau idazten gabiltzanok pribilegio zuria deseraikita daukagunik; esaten ari garena da oraindik asko daukagula egiteko, hausnartzeko, konturatzeko, eta bide horretan kolonizatzaile bati ezin zaio gorazarre egin. Larria iruditzen zaigu, kolonialismoan hain modu zuzenean parte hartu zutenekiko kritikotasun falta, besteak beste, Elkanorekin. Euskaldunok ardura hartu beharra daukagu eta kolonialismo historiko eta gaurkotuan izan dugun eta oraindik daukagun papera kritikotasunez aztertu. Izan ere, menperatutako herrien miseria gure aberastasuna izan da eta hala izaten jarraitzen du. Ardura hartzeko garaia da.

Gure ustez, euskaldunok, Euskal Herria autodeterminazioa eta burujabetza helburu dituen herri estatugabea izanik, behar-beharrezko ditugu ikonoak. Ulertzen dugu gure historia behin eta berriz ukatua, gordea, besteren ahotan eta interesen arabera kontatua izan den heinean erreferenteak falta zaizkigula. Horri dagokionez lan asko dago egiteke. Baina, kolonialismoa pairatu eta pairatzen duen herri zapaldu gisa, erreferente horiek hautatzean, hausnartu beharko genuke zein pertsonaia eta zergatik goratu nahi dugun. Guk jakin beharko genuke, zeinen bidegabea den boteretsuagoa den norbaitek gure partez erabakitzea, gu erabiltzea, gure aurka indarkeriaz jokatzeko. Izan, gauzak oso gutxitan direnez zuri edo beltz, gaiari konplexutasunez heldu eta autokritika egin behar dugu; ezin dugu beste albo batera begiratu, are gutxiago guk.

Guk garbi dugu: Lope, Elkano eta antzeko gizonak presente izan nahi baditugu, izan dadila autokritika egiteko. Onar dezagun, behingoz, kolonialismo basatian mendebaldeko estatuek (baina, baita euskaldunok ere) izan dugun eta izaten jarraitzen dugun papera. Gure etorkizuna pentsatu eta ekiteko, historiaren irakurketa zintzoa egiteari beharrezko deritzogu, gure bazterrak arakatu eta norabide horretan, bestelako erreferente errebeldeak bilatuko ditugu.